elizalde HERRI ESKOLA — elizalde INSTITUTUA

MURRIZKETARIK EZ

# LOMCERI EZ!

Ikusita Espainiako Gobernuaren Hezkuntza ministerioak aurrera jarraitzen duela LOMCE delako lege aurreproiektuaren aldebakarreko inposaketaren bidez …

Ikusita ez duela egiazko eztabaida garatu Hezkuntzako eragileekin, egindako proposamenei eta gizarte aldarrikapenei muzin eginez …

Ikusita ondorengo atal atzerakoiak inposatu nahi dituela, hots:

- Ratioen igoera, masifikazioa geletan: bost ikasle gehiago gelako.
- Ikasleen segregazio goiztiarra, DBH 3-an.
- Ikasleen ibilbidea errebalida-lehiaketa baztertzaile bihurtzea.
- Sexuaren araberako segregazioa ekonomikoki sustatzea.
- Hezkuntzaren eta ikasleen erabilera merkantilista bilatzea.
- Ikastetxeak emaitza subjektiboen arabera publikoki klasifikatzea.
- Gestio pribatua lehenestea ikastetxe publikoetan.
- Aginte organo unipertsonalak bultzatzea, bestelakoak ukatuz.
- Curriculumaren zentralizazioa eta uniformizazioa sustatzea.
- Euskal Herriko curriculumaren garapena are gehiago murriztea.
- Euskararen bazterketa inposatzea, behar duen lehentasuna ukatuz.
- Erlijio katolikoa berrezartzea gizarte anitz eta laikoan.
- Murrizketa berrien bidez, Hezkuntzako langile ororen lan baldintzak hondatzea, eskaintzen dugun kalitatea zapuztuz.

Hori guztia ikusita, LOMCEren inposaketaren kontrako mozioa aurkezten diogu udaletxe honi Oiartzungo ondorengo hezkuntza publikoko eragileok:

***Ikastetxeak:***

**ELIZALDE LHI**

**ELIZALDE BHI**

***Guraso elkarteak:***

**ELIZALDE LHko GURASO ELKARTEA**

**ELIZALDE DBHko GURASO ELKARTEA**

Onarpenaren orria fax honetara bidali____**943 49 10 52**___ edo orriaren eskanerra mail honetara bidali__**012963aa@hezkuntza.net**_

| | | | |
|---|---|---|---|
| ELIZALDE LHIko zuzendaria | ELIZALDE LHko GURASO ELKARTEko lehendakaria | ELIZALDE BHIko zuzendaria | ELIZALDE DBHko GURASO ELKARTEko lehendakaria |